

LUIS INTXAUSPE AROZAMENAK, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko administrazio kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2016ko ekainaren 16an egindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu duela:

1.- Garbitania Zero Zabor S.M.k Hernaniko eta Usurbilgo Udalerrietan selektiboki jasotako bio-hondakinen transferentzia zerbitzua burutzeko kontratuaren esleipena erabakitzea.

2015eko urriaren 2an Garbitaniako Administrazio Kontseiluak burutu bilkuran goian aipaturiko kontratazio prozesua abiarazteko erabakia hartu ostean, 2016ko martxoaren 17an pleguak eta gastua onartzeaz gain honako bost enpresak gonbidatzea adostu zen:

- Easo Containers.
- Arregi Etxabe Juan Jose S.A.
- Traeco Ingurumena S.M.
- Transportes Garrai S.A.
- Contenedores Susperregi

Eskaintzak jasotzeko epearen barruan ondorengo bi eskaintzak jaso ziren:

- Arregi Etxabe Juan Jose S.A.
- Traeco Ingurumena S.M.

Eskaintza horiek Garbitaniako Ingurumen Teknikariak, Usurbilgo Zerbitzu saileko zinegotziak, Garbitaniako Koordinatzaileak, Hernaniko Ingurumen saileko zinegotziak eta Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerentziak osatutako mahaiak aztertu ditu. Ondoren, bi lizitatzailleek eginiko puntuagarria zen esperientziaren eta eskaintza ekonomikoaren balorazioa egiten da. Eskaintzak eta puntuazioak honakoak direlarik:

Traeco Ingurumena S.M.	Eskainitako prezioa	Isurketen aurrean garbiketa ahalmena	Hobekuntzak	Kontainerra ordezkatzeko ahalmena	PUNTUAZIOA GUZTIRA
Zenbatekoa	73,70 €	Ibilgailu propioa	1.- Edukiontzien garbiketa errefortzu 2.- Urteko informebat burutzea 3.- Datu base informatikora teknikoen sarbidea ahalbideratzea	Propietatean 120€	
Puntuazioa	60	15	7	8.75	90.75

Arregi Juan Jose S.A.	Eskainitako prezioa	Isurketen aurrean garbiketa ahalmena	Hobekuntzak	Kontainerra ordezkatzeko ahalmena	PUNTUAZIOA GUZTIRA
Zenbatekoa	74,69 €	ez	Ez da puntuagarria den hobekuntzarik hobetsi.	Propietatean 70€	
Puntuazioa	6	0	0	15	21,00

Horrela, teknikoki eta ekonomikoki eskaintzarik onena TRAECO INGURUMENA S.M.k eginikoa dela deliberatzen du kontratazio mahaiak, Administrazio Kontseiluari jakinarazten diona.

Hori guztien arabera, Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak ekainaren 16an burutu bilkuran, kontratazio mahaiaren eskariz aho batez honakoak adosten ditu:

Lehenengoa.- Garbitania Zero Zabor S.M.k Hernaniko eta Usurbilgo Udalerrietan selektiboki jasotako bio-hondakinen transferentzia zerbitzua burutzeko kontratuaren esleipena Traeco Ingurumena S.M.ri esleitzea 73,70 €/orduko salneurrian (BEZ barne).

Bigarrena.- Traeco Ingurumena S.M.ri enpresari hartutako erabakia jakinaraztea eta eskatzea agiri hauek aurkeztu ditzan **eskaera hori jaso eta hurrengo egunetik hasita hamar (10) lanegunen barruan:**

- Pleguetako 11. puntuan jasotako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duten dokumentuak.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dituen ziurtagiriak.
- Kontratua gauzatzera dedikatu edo atxikitza konprometitu den baliabideak benetan badituela ziurtatzen dutenak.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioari dagokionez honakoak:
 - Enpresak hartu duen prebentzioaren antolaketa moduaren ziurtagiria
 - Lan arriskuen ebaluazioa, bere jarduerari dagokionez
 - Beraien lanpostuan aritzeko langileen mediku-gaitasun ziurtagiriak (osasun zaintza).
 - Langileek, egiten duten jarduerari buruzko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Langileen lanpostuen jardueretarako beharrezkoak diren Norbera Babesteko Ekipamenduen entrega ziurtagiria eta hauek

erabiltzeko beharrezko informazioa eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.

- Lanak egingo dituzten langileen zerrenda
- Langileen TC2 eta TC2 kotizazio agiriak eta Gizarte Segurantzari kuotak ordaintzen direla ziurtatzen duten agiriak
- Erantzukizun zibileko polizaren kopia. Bere estaldura gutxienez 300.000 eurokoa izango delarik.
- Ibilgailuen seguruen kopia.
- Behar den kasuan enpresa elkartuaren eratzearen ziurtagiri legala
- Era berean EJZn kontratuak duen helburuari dagokion epigrafean alta emanda dagoela ziurtatu beharko du, horretarako alta edo azken errezioboaren aurkeztu beharko duelarik.
- Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen agiria.
- Deskribatutako hondakina garraiatzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailak Hondakin eta Lur kutsatuen 22/2011 Legean jasotako aktibitateak aurrera eramateko beharrezkoak diren baimen eta erregistroen jabetzan dagoela ziurtatzen duten agiria

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko lehendakari eta gerenteari ahalmena ematea, eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratua gauzatu dezaten.

10 eguneko epealdiaren barruan Traeco Ingurumena S.M.k eskatutako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu ditu.

Horiek horrela, eta administrazio kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitutzat ematen da eta Traeco Ingurumena S.M. enpresari jakinarazpen hau jaso eta hamabost lanegun barruan kontratua sinatzera Garbitaniara etortzeko dei egiten zaio.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, agiri hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.

Usurbilen, 2016ko uztailaren 1ean.

O.I



LEHENDAKARIA



IDAZKARIA